

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1326

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak 2023an finantzatzeko, bat etorritz, betiere, laguntza horiek emateko prozedura arautzen duen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduarekin.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2023ko martxoaren 7ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak 2023an finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Galetako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Hala, bat etorritz Lanbideren Estatutueta 10.2 artikulua (n) apartatua xedatutakoarekin (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Hori guztia dela-eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2023ko martxoaren 7ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bitartez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak 2023an finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Galetako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (erabakia ebazpen honi atxikitako eranskinean dago jasota).

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki horrek ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Ohartaraztea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak deialdia onartzeko hartu duen erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabete epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

ERABAKIA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA 2001EKO MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA 2001EKO UZTAILAREN 31KO 25/2001 ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEAN DAUDEN LANGILEENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK 2023AN FINANTZATZEKO, BAT ETORRIZ, BETIERE, LAGUNTZA HORIEK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILBURUAREN 2012KO APIRILAREN 18KO AGINDUAREKIN

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduaren (2012-05-03ko EHAA, 86. zk.) helburua da arautzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak emateko prozedura. Errege dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (196/2010 Errege Dekretua abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Sistemas de Instalaciones de Telecomunicaciones SA (Sintel) enpresari baimena eman zitzaion enplegu-erregulazioko espediente horiek ezartzeko.

Dirulaguntzak emateko arau horren indarraldia mugagabea da. Hala ere, arauaren 6.1 artikuluan ezartzen denez, aginduan aipatzen diren laguntzak emateko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira. Kreditu horiek aldatu ahal izango dira indarrean dagoen aurrekontu-legeekin bat etorritik. Hasierako kreditua eta aldatetako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez iragarriko dira.

Deialdi honetako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen 2023ko ekitaldiko Dirulaguntza Plan Estrategikoan daude aurreikusita. Organismo autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen plana, 2022ko abenduaren 21eko bileran hartutako erabakiaren bidez, eta, hartara, bete egin zuen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan xedatutakoa. Plana Lanbideren webgunean argitaratu da: www.lanbide.euskadi.eus. Dirulaguntza horiek lagundu egiten dute planean jasotako beste «kolektibo zaugarri batzuen aukera-berdintasuna» lortzeko helburu estrategikoan, eta estaldura ekonomikoa ematen diete lehen aipatutako enplegu-erregulazioko espedienteen ondorioz lanpostua galdu zuten langileei.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2023ko martxoaren 7ko bilkuran eztabaidatu ondoren, hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Baliabide ekonomikoak.

271.240 euro esleitzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak 2023ko ekitaldian finantzatzeko, bat etorritik, betiere, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurarekin. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Zenbateko horretatik, 28.800 euro 2023ko ordainketa-kredituari dagozkio; gainerako guztia, berriz, hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari: 2024tik 2036ra. Diru-esleipen hori 3211. programaren kargura egingo da (Enplegua, 41. sekzioa – Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua).

Hala badagokio, kopuru hori handitu egin daiteke; baina, horretarako, aurrekontu-aldaketak onartu beharko dira indarrean dauden legeen arabera. Halako aldaketarik eginez gero, Lanbi-de-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

Bigarrena.— Administrazio-isiltasuna.

Bat etorri Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluan 9. apartatuan xedatutakoarekin —azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartuta—, eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epea igaro ondoren —2012ko apirilaren 18ko Aginduaren 4.4 artikuluan dago aurreikusita epe hori— ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira.

2023ko martxoaren 15a, asteazkena



**LAGUNTZA BEREZIEN ESKABIDEA, ENPLEGU-ERREGULAZIOKO 2001EKO
MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA 2001EKO UZTAILAREN 31KO 25/2001 ESPEDIENTEEN
ERAGINPEAN DAUDEN LANGABEENTZAT (SINTEL)**

Administrazioak betetzeko

Prozeduraren kodea							
--------------------	--	--	--	--	--	--	--

1. ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

2. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
KOMUNIKAZIO-HIZKUNTZA		
Euskara	<input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>
JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOAK EGITEKO BIDEA		
Telefono mugikorra		Helbide elektronikoa

3. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

- DIRULAGUNTZA BEREZIA
 HITZARMEN BEREZIKO KOPURU GEHIGARRIA
 BERREKITEA
 ERREKITEA



4. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Markatu x batekin dagokiona

Eskatzaileak hau ADIERAZTEN DU:

Lehena:

- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigor-zehapenik edo administrazio-zehapenik, arrazoi hauengatik gertatutakoak barnean izanik:
- Sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik, lege hauetan xedatutakoaren arabera: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Edo
 - Ebazpen irmo baten bidez zehapen osagarri bat hartu izana, Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena:

- Egunean dago zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

Hirugarrena:

- Ez dauka ordaindu gabeko itzulketa-betebeharrik dirulaguntzen arloan, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

Laugarrena:

- Ez dago Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeretako batean ere, dirulaguntzen onuradun izateari dagokionez.

Bosgarrena:

- Ez dago ezein itzulpen- edo zigor-prozeduraren eraginpean, EAeko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzaren bat dela eta.
- Badago itzulpen- edo zigor-prozeduraren baten eraginpean, izeneko laguntza edo dirulaguntza dela eta, zeina(e)k eman baitzuen.

Seigarrena:

- Eskabide honetan adierazitako datuak egiazkoak dira.



5. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Lagapenen hartzaileak	Arloko eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zuk eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, datuak zuzendu eta ezerezteko, eta datuen tratamendua mugatzeko eta haren aurka egiteko ere. Ikusi informazio gehigarria.
Informazio gehigarria	Gure webgunean kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza (https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml).
<p>Hauek betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf). • Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf). 	

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA

- Aurrez aurre, leku hauetan:
 - LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi kalea 1, 01009 VITORIA-GASTEIZ
 - Arabako Lurralde Bulegoa, Antilletako pasabidea 14 - behea, 01012 VITORIA-GASTEIZ
 - Bizkaiko Lurralde Bulegoa, Ercilla kalea 4, 48009 BILBAO
 - Gipuzkoako Lurralde Bulegoa, San Martzial kalea 12, 20005 DONOSTIA
 - Tokiko enplegu-bulegoak, aurretiazko hitzordua hartuta
- Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

7. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza ordaintzeko, kotizazio-buletinak aurkezteko epea 6 hilekoa izango da, dirulaguntza eman den hilabetetik aurrera.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, langabeziagatiko prestazio kontributiboa aitortzeari eta amaitzegtiko iraungitzeari buruzkoa. Prestazio hori jasotzeko eskubiderik izan ezean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, hala dela egiaztatzeko.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin sinatutako hitzarmen bereziaren kopia, hala badagokio. Beste hauek, lanean hasteagatik dirulaguntza eten eta gero, dirulaguntza berriz jasotzen hastea eskatu duten pertsonen bano ez:



- Kaleratze-gutuna, edo langileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kargugabetzearen egiaztagiria.

Beste hauek, norberaren konturako lanpostuko kargugabetzea bada:

- Norberaren konturako gizarte-segurantzan dagokion erregimeneko baja, eskatzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kargugabetzea bada.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergako baja.

8. INFORMAZIO GEHIGARRIA

1.– Datu pertsonalak egiaztatzea.

Bat etorri Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, beharrezko diren egiaztapenak egingo dituela eskabide honetan adierazi diren eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak egiazkoak direla egiaztatzeko.

2.– Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, pertsona edo entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimaki bat bete beharko du, hemen adierazitako ereduari jarraituz: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu>.

.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura